

PROBA ESPEZIFIKOA

201' ko PROBA

HISTORIA

PROBA

ERANTZUNAK





Probaren iraupena: ordubete

1. TESTU-IRUZKINA. (4 puntu)

[...]

Oinarrizko ekoizpen-bideen jabetza kolektiboa. Hau da, ekoizpen benetan herritarra, Estatuarena izan, zein ekoizle-elkarteena edo kooperatibena izan, berekin dakarrena langileen parte-hartzea ekonomia-zuzendaritzan eta -plangintzan eta gainbalioaren banaketan. Industria txikietan, merkataritzan, eskulangintzan eta zerbitzuetan, ekimen pribatuak iraungo du, baina kontrol publikoarekin.

Jabetza kolektibo horretan oinarriturik, sistema pluralista bat sortzea, non alderdi politikoek herritarren interesen defendatzaile gisa hartuko baitute parte. Alderdi Komunistak eutsi egingo dio bere gidari-eginkizunari, baina lehia demokratikoaren barnean.

Demokrazia sozialista bat garatzea, herritarrari eskubide gehiago eta askatasun eta eragin handiagoa emango dizkiona demokrazia parlamentarioetan edo burokrazia estalinistan baino. Herritarrak ordezkariatzako demokraziaren bidez —ordezkariak sufragio sekretu bidez hautatuak— eta zuzeneko demokraziaren bidez —boterea langile-kontseiluen bidez eta eskualde, udalerrri, auzo eta abarretako bestelako autogestio-formulen bidez kontrolatzea— erabiliko du boterea.

Sindikatuaren independentzia eta greba-eskubidea bermatzea [...]

Independentzia handiagoa enpresei, ekoizpena handitzeko eta herritarren beharrianak —merkatu sozialistaren presioa— asebetetzeko, eta, aldi berean, plangintza zientifiko baten bidez, gizarte osoaren interesak, lanerako eskubidea, bizi-maila eta erretiro duina ziurtatzeko.

Kanpo-politikan, Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunarekiko eta Varsoviako Itunarekiko harremanei eustea.

**Ekintza Programa
Txekoslovakiako Alderdi Komunistaren Batzorde Zentrala**

TESTUARI BURUZKO IRUZKINAK EGIN ALDERDI HAUEI DAGOKIENEZ:

- Ideia nagusia.
- Ezaugarriak.
- Testuingurua.
- Garapena eta iruzkina
- Iruzkin pertsonala eta konklusioak.



2. Beheko taulan, ordenatu itzazu kronologikoki informazio hauek: (1 puntu)

- A. Txernenkoren heriotza, eta Gorvatxov haren ordeztartzea
- B. Gandhiren hilketak
- C. Pragako Gutuna
- D. Videla jeneralaren estatu-kolpea Argentinan
- E. Municheko Konferentzia
- F. Talibanek Kabul hartzea
- G. Nasser, Egiptoko lehendakari
- H. Kubako misilen krisia
- I. Sadat Egiptoko lehendakariaren hilketak
- J. Austria, Suedia eta Finlandia Europar Batasunean sartzea

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

3. Egin ezazu mapa honen iruzkin labur bat. (2 puntu)

Alemaniak Sudeteak anexionatzea (1938)



4. Defini itzazu, labur, termino hauek. Aukeran eskaintzen zaizkizun seietatik hiru hautatu behar dituzu. (Ariketa osoa: 3 puntu. / Puntu bat definizio bakoitzeko).

- 1. Bandung-eko Konferentzia
- 2. Poloniaren inbasioa
- 3. Marshall plana
- 4. Solidarność sindikatua
- 5. Gerrako komunismoa
- 6. Abisiniako arazoak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2013ko MAIATZA

HISTORIA OROKORRA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2013

HISTORIA GENERAL

**ORIENTABIDE GISAKO EBAZPENA
(2013ko maiatza)**

TESTU-IRUZKINA

Ideia nagusia.

Txekoslovakiako Alderdi Komunistaren Batzorde Zentralak proposatutako ekintza sorta bat jasotzen du, Sobietar Batasunak ezarritako ortodoxia sozialistarekin etetea dakarrena.

Ezaugarriak

Testu mota: testu programatikoa. 1968.

Egileak: Txekoslovakiako Alderdi Komunistaren Batzorde Zentrala.

Testuingurua

Pragako 1968ko udaberria.

Berrogeita hamarreko hamarkadako desestalinizazioak bide eman zion soldata eta lan-baldintza hobeen aldeko langile-protesta gero eta ozenago bati.

Garapena eta iruzkina

Programa —Pragako udaberria— horren postulatuek ekoizpen-bideen jabetza kolektiboari eta Alderdi Komunistaren gidari-eginkizunari eusten zieten.

Iruzkina pertsonala eta konklusioak

Nekez gauzatu zitekeen eredu sozialistarekiko haustura Gerra Hotza bete-betean zegoen garaian eta bloke sozialistaren barnean, non Sobietar Batasunaren kontrola erabatekoa baitzen.

2.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
E	B	G	H	D	C	I	A	J	F

1. 1938: Municheko Konferentzia
2. 1948: Gandhiren hilketa
3. 1952: Nasser, Egiptoko lehendakari
4. 1962: Kubako misilen krisia
5. 1976: Videla jeneralaren estatu-kolpea Argentinan
6. 1977: Pragako Gutuna
7. 1981: Sadat Egiptoko lehendakariaren hilketa
8. 1985: Txernenkoren heriotza, eta Gorvatxov haren ordeztzea
9. 1995: Austria, Suedia eta Finlandia Europar Batasunean sartzea
10. 1996: Talibanek Kabul hartzea



3. Sudeteak (Txekoslovakia) anexionatzea.

1938tik, Hitlerrek presioa egiten zion Pragari, Sudeteetako populazio jatorri alemaniarrekoa Reichen mugen barnean sartzeko.

4.

1. Bandung-eko Konferentzia

Asiaren iratzartze-urteak ziren. Lehen independentziak lortu ziren Asian eta Afrikan.

2. Poloniaren inbasioa.

Alemaniar unitate mekanizatuak, frontea hautsita, Polonian sartu ziren 1939an.

3. Marshall plana.

Bazirudien Europaren berreraikuntza ekonomikoa ezinezkoa izango zela kanpo-laguntzarik ezean.

4. Solidarność sindikatua.

1980an, Enpresen arteko Greba Batzordea, Lech Walesaren gidaritzapean, eta gainerako greba-batzordeak mugimendu sindikal berriaren ernamuin bihurtu ziren.

5. Gerrako komunismoa.

Iraultzak proiektu ekonomiko berri bat landu zuen gerra zibilaren garairako.

6. Abisiniako arazoa.

Afrikako estatu independente bakarra Etiopia zen. Italia 1934tik zebilen hura kontrolatu nahian.

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA

GALDERA	EDUKI-BLOKEAK ETA ADIERAZLEAK
1	4. blokea
2	1-6 blokeak
3	1. blokea
4	1-6 blokeak